

**2017KO IRAILAREN 28AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita zortzia.

**HILABETEA:** Iraila.

**URTEA:** Bi mila eta hamazazpi

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** AITOR ALDASORO ITURBE

**BILDUAK:**

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE  
MALU VALLES FERNANDEZ  
XABIER MATARRANZ RICO  
EDORTA DIAZ DEL RIO  
NEKANE ZALDUA ESNAOLA  
ENKARNI ARRIETA TELLERIA  
JON OLANO ARRESE  
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak:

KOLDO AGIRRE MUJIKA  
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ  
AITOR LARBURU IZAGUIRRE  
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL  
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE  
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS  
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

## **IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA**

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak ere, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

**1.- AURREKO AKTA.** 2017ko uztailaren 20ko akta onartzeko proposamena.

2017ko uztailaren 20ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- ZINEGOTZIA.** Zinegotzia karguaren jabetza hatzea.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Zinegotzi kargua hartzeko beharrezkoa da aurkeztea bateraezintasun eta ondasunen aitortpena. Nekane Zaldua Esnaola andreak, aurkeztu ditu eta horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza har dezake. Horretarako, legalki ezarrita dagoen zine-egite formula baieztu behar du.”

Alkate jaunak, zin-egite formula irakurri dio, zinegotzi kargua hartu behar duenari, hau da: “*Zin dagizu edota agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?*”

Nekane Zaldua Esnaola andreak: “Bai. Legeak hala behartuta, zin egiten dut.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Beraz, Nekane Zaldua Esnaola andreak, Beasaingo Udalaren zinegotzi karguaren jabetza hartu du eta EAJ-PNV udal taldearen kide izatera pasatuko da.”

**3.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS.** Transferencia de créditos.

Ezagutzera eman da, Alkatearen proposamena, hots:

“GAIA.- *Kreditu Aldaketa, 6. Kreditu Transferentzien Espedientea.*

*Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkateak honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:*

1.- *6. Kreditu Transferentzien bidez 210.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.*

2.- *Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin betirako onartutzat emango da.”*

## **KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**

**Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0230.227.335. 30.07	Lan teknikoak:proiektu berriak	40.000,00	10.000,00	30.000,00
0350.781.342. 90.01	Azp. et urb.: Saskibaloirako kantxa egokitu.	100.000,00	100.000,00	0,00
0350.601.153. 20.02	Azp. eta urb.: Zaldizurretako atzealdearen zolaketa	206.000,00	100.000,00	106.000,00
<b>GUZTIRA</b>		346.000,00	210.000,00	136.000,00

**Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0230.481.230.20.01	Dirulaguntza: Garabide	0,00	10.000,00	10.000,00
0350.781.342.90.02	La Salle-S. José ikastetxea: patioaren estaldura dirulag.	0,00	200.000,00	200.000,00
<b>GUZTIRA</b>		0,00	210.000,00	210.000,00

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Bi puntu dira osatu nahi direnak, hain zuzen ere, bi proiektu aurrera ateratzeko. Alde batetik, Garabide elkartearekin, garapen bidean dauden herrialdeetan hizkuntza gutxituak mantentze aldera eta horretarako euskara adibide gisa hartuta, herrialde gutxitu horiek, bizitzeko oinarrizkoak diren hainbat baliabidez gain, nortasuna mantentze aldera, 10.000 € bideratuko dira Garabidera. Besta alde batetik, La Salle San Jose ikastetxearen patioaren estaldura, diruz laguntzeko, 200.000 €ko partida bat sortzea proposatu da, 100.000 €ko gehikuntza izanez lehen zegoenarekiko. Hau hitzarmena sinatzearekin lotuta egongo da eta noski, bertan adierazten diren baldintzak betetzearekin.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek eman dira:

Koldo Agirre Mujika jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Puntu honetan abstenitu egingo gara. Ematen du hitzarmena bideratzen ari dela baina, itxita ikusi arte nahiago dugu

abstenitzea. Prozedimentalki zuzenagoa iruditzen zaigu hitzarmena itxita egotea eta ondoren kreditu aldaketa gauzatzea.

Alkatae jaunak (EAJ-PNV): "Gertatuko balitz hitzarmena ez sinatzea, diru hori geratuko litzateke."

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nuestra postura, en principio, es la misma que la de Beasaingo EH BILDU. Dado que desconocemos cómo va a terminar de definirse el convenio, nuestra postura será la de la abstención."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 8 (Beasaingo EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

#### **4.- ORDENANTZA FISKALAK.** Tarifak aplikatzeko arauen aldaketa.

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

*"GAIA.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren eranskinaren aldaketa.*

*Antolakuntza Batzordeak 2017ko irailaren 21ean egindako bileran, Udalbatzari ondorengo PROPOSAMENA egitea erabakitzen du, udal jabari publikoaren okupazioarengatik hainbat tasa modu egokigoan aplikatzeko.*

#### **PROPOSAMENA**

*Udal jabari publikoaren "Hesiak, kontenedoreak, garabiak, aldamiok eta zutabeak" eranskina aldatzea, Tarifak Aplikatzeko Arauen artean ondorengo gehituz:*

*D) 1, 7 eta 9 atalei dagozkien tasak likidatzerakoan, okupazioaren arabera, egun osoz edo egun erdiz egingo da."*

#### **HESIAK, KONTENEDOREAK, GARABIAK, ALDAMIOAK ETA ZUTABEAK**

##### *Euroak*

*1. -Hesiak, era guztietako lanetan eta obretarako aparkalekuaren erreserba:  
- m2 edo zatiko eta eguna*

*1. mailakoak 0,62*

*2. mailakoak 0,59*

*3. mailakoak 0,45*

*2. -Zaborrak eta materialeak gordetzeko kontenedoreak*

*Bakoitzeko egunean*

1. mailakoak	3,10
2. mailakoak	2,49
3. mailakoak	2,18

*3. -Garabiak*

*Eraikuntzan erabilitako garabi bakoitzeko, bere besoak edo lumak ibilera bide publikoaren hegalkina okupatzen badu, hile edo zatiko:*

1. mailakoak	61,82
2. mailakoak	49,48
3. mailakoak	37,04

*4. -Aldamio finkoetan jarritako defentsak, bide publikoan apoiatuak, horien azpitik libreki ibiltzea ezinezko bihurtzen duten euskarriekin.(m<sup>2</sup> edo zatiko eta eguneko)*

1. mailakoak	0,62
2. mailakoak	0,59
3. mailakoak	0,45

*5. - Aldamio finkoetan jarritako defentsak,bide publikoan apoiaturik daudenean azpitik libreki ibiltzea uzten duten euskarriekin (m<sup>2</sup> edo zatiko eta egunean)*

1. mailakoak	0,25
2. mailakoak	0,172
3. mailakoak	0,137

*6.- Defentsa berberak aldamioak erlaizean jarrita daudenean, eta horien azpitik libre ibiltzea posible denean (m<sup>2</sup> edo zatiko eta eguneko).*

1. mailakoak	0,172
2. mailakoak	0,137
3. mailakoak	0,106

7.- Bestelako tresna lagungarriak: autogarabia, karga-jasogailua, kamioi besoa, garabia hidraulikoa, plataforma hidraulikoa, hormigoia botatzeko kamioi eta bonba, konpresoreak, obretako etxolak, hormigoia-makina, siloak, etab. (eskabadora, kamioa,...)  
(m<sup>2</sup> edo zatiko eta eguneko)

1.mailakoak	0,63
2. mailakoak	0,59
3. mailakoak	0,45

8.- Zabor eta eraikuntza materialeak. m2 edo zatiko eta eguneko

1. mailakoak	1,52
2. mailakoak	1,26
3. mailakoak	1,09

9.- Obrak direla eta kalea ixteagatik (eguneko):

1. mailakoak	209,00
2. mailakoak	174,00
3. mailakoak	116,00

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Ez da igoerarik planteatu, diru sarrerak betetzen ari direlako eta kupoa zela eta gordailua gordeta eduki behar izaten genuen eta hori askatzen bidean denez, igoerarik ez da emango. Aldatzen dena tarifen aplikazio arauak (egun osoa edo erdia izan daiteke)."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**5.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO PLAN ESTRATEGIKOA.** Hasierako onespina.

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

"Gaia: 2017-2019 Diru-laguntzaen Plan Estrategikoa.

AURREKARIAK

Oinarrizko izaera duen diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio:

Administrazioko organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Aipatutakoaren arabera, Antolakuntza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. 2017-2019 Diru-laguntzaen Plan Estrategikoari (proposamen honi atxikitzen zaio) hasierako onespina ematea.

Bigarren. 20 laneguneko epean jendaurrean jartzea, testu osoa GAOean eta Udalaren Web orriko ediktu taulan argitaratuz, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu daitezten.

Hirugarren. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin betiko onartua geratu dela ulertuko da.”

#### “2017-2019 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Oinarrizko izaera duen diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».

Diru-laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru-laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren egoeran. Zentzu horretan, diru-laguntzei buruzko informazio gehiago izateak administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori diru-laguntzak sortu aurretik egin beharko da. Plan hau hainbat urtetarako izateko bokazioz egin da, betiere urtero beharrezko izan daitezkeen aldaketak egin beharko bazaizkio ere.

Horregatik, Udal honek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Planak ondorengo artikulua ditu:

*1. artikulua.*

*Beasaingo Udalak eta bere organismo autonomoek 2017-2019 aldian eman behar dituzten diru-laguntzak honako hauei egokituko zaizkie:*

- a) Diru-laguntzen Lege Orokorrari*
- b) Plan Estrategiko honi.*
- c) Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.*
- d) Diru-laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarriari.*
- e) Dagozkion hitzarmenei.*

*2. artikulua.*

*Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru-laguntzak arautzeko oinarriak edo kontsignazio izenduna onartu.*

*Diru-laguntzak aurrekontuetan jaso eta emateko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.*

*3. artikulua.*

*Diru-laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalteordainik edo kopentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.*

*4. artikulua.*

*Plan honetan eta bere eranskinean zerrendatuta datoz Beasaingo Udalak eta bere organismo autonomoek kudeatu beharreko diru-laguntzen lerro edo programa guztiak.*

*Diru-laguntza lerro edo programa bakoitzean hauek zehazten dira:*

- Lortu nahi diren helburuak.*
- Emakida mota aplikagarria.*
- Hartzaileak.*
- Diru kopurua.*
- Aurrekontuaren aplikazioa.*

*5. artikulua.*

*Plan honekin batera doan eranskina eta bertan kontsignatutako kopuruak 2017ko ekitaldirako aurrekontuan onartutako diru kopuruei dagozkienak dira.*



6. artikulua.

*Udalak eta bere organismo autonomoek dirulaguntzak emango dizkie pertsoneri edo erakundeei, erabilera edo interes sozialeko jarduerak bultzatzeko edo udal eskumeneko helburu publikoen lorpena sustatzeko.*

7. artikulua.

*Beasaingo Udalak diru-laguntzak emango ditu urtero, hainbat udal diru-laguntza lerrotan, ondorengo eskumenen arloan:*

- *Gizarte Ongizatea.*
- *Hizkuntza politika.*
- *Kultura eta gaztedia.*
- *Kirola*
- *Hezkuntza, Berdintasuna eta Migrazioa.*
- *Hirigintza eta ingurugiroa*
- *Merkataritza eta Turismoa.*
- *Landa Ingurunearen sustapena.*
- *Ekonomia eta enpleguaren sustapena*

8. artikulua.

*Beasaingo Udalak eta bere organismo autonomoek ematen dituzten diru-laguntzak bere diru-funtsez finantzatuko dira, dagokion ekitaldirako Udaleko Gastuen Aurrekontuaren IV eta VII kapituluaren kontura.*

9. artikulua.

*Sail bakoitzak egingo du Plana betetzearen urteko jarraipena.*

10. artikulua.

*Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, sail bakoitzak txosten bat osatuko du planaren ebaluazioa eginez. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru-laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; hurrengo Plana osatzeko oinarri izango direnak.”*

1.- Sail kudeatzaileak: Ogasuna eta Antolakuntza / Departamentos gestores: Hacienda y Organización

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias		Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo
Enpleguaren sustapena / Fomento de empleo	Enpresak / Empresas				
		0110.471.241.00.01	Dirulagun. enplegua sortzeag./ Subv. generación empleo	8.000,00	Ordenantza/Ordenanza
		0270.471.241.00.01	Dirul.: "Lehen aukera" programa/ Subv.: programa "Lehen aukera"	15.000,00	Ordenantza/Ordenanza
Etxebizitzaren birgaitze eta irisgarritasuna hobetzearen sustapena / Rehabilitación de viviendas y promoción mejora accesibilidad	Familiak / Familias				
		0110.480.152.20.01	Dirulaguntzak irisgarritasuna / Subvenciones accesibilidad	10.000,00	Ordenantza/Ordenanza
		0110.480.152.20.02	Dirulag.. Renove plana etxebiz. / Subv. plan Renove vivienda	10.000,00	Ordenantza/Ordenanza

2.- Sail kudeatzailea: Gizarte Ongizatea / Departamento gestor: Bienestar social

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias	Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo
Garapenerako lankidetzan eta giza prebentzio, sustapen eta sentsibilizazioan jarduten duten elkarteak / Ayudas a asociaciones que actúan en el área de la cooperación al desarrollo y prevención, promoción y sensibilización social	ONG eta gizarte zerbitzuetako elkarteak/ ONGs y asociaciones de servicios sociales			

		0220.481.230.20.03	EUSKAL FONDOA	109.100,00	Akordioa/Acuerdo
		0220.481.231.00.02	Erakundeei dirulaguntza/ Subvención a entidades	16.912,00	Bases reg./Oinarriak
		0220.481.311.10.04	Goiz Alzheimer Fundazioa	50.000,00	Izenduna/Nominativa
		0220.481.230.20.01	Lankidetzak ekintzetarako dir. / Subvenc. actividades cooperac.	46.750,00	Bases reg./Oinarriak
Adineko pertsonen ongizate eta partehartze soziala sustatzea./Promoción del bienestar y participación social de las personas mayores	ARANEALDE erretiratuen Elkartea/ Asociac. jubilados	0220.481.337.10.01	Erretiratuen etxea / Hogar del Jubilado	54.739,00	Izenduna/Nominativa
Baztertzeko arriskuan, egoera ekonomiko eskasean, errehabilitazio programetan eta espetxeetan dauden pertsonak bisitatzeko senideei laguntzak/Ayudas a personas en riesgo de exclusión, en situación económica desfavorable, en programas de rehabilitación y ayudas para visitar a familiares encarcelados.	Familiak / Familias				
		0220.480.231.00.01	Tasa hobariak/ Bonificac. tasas	32.000,00	Bases reg./Oinarriak
		0220.480.231.04.01	Prebentzio program. Laguntza / Ayuda transporte Programa Rehabilitación	1.500,00	Udal Irizpid/Crit munic.
		0220.480.231.03.01	Presoen familiakoen bidai lag./ Ayuda transp. familiares presos	6.500,00	Ordenantza/Ordenanza
		0220.480.231.05.01	Egoera berezian egoteagatik lag/ Ayuda situación especial.	1.000,00	Udal Irizpid/Crit munic.
Menpekotasun handia eta desgaitasuna duten pertsonen laguntzak /Ayuda a personas con gran dependencia y minusvalía	Familiak/Familias				

		0220.480.231.01.01	Mendekotasun handia duten haurren estimulaziorako laguntza /Ayuda prog. estimulac. niños gran dependencia	10.000,00	Udal Irizpid/Crit munic.
		0220.480.231.02.01	Ezgaituen garraioa/Transporte de minusválidos	3.000,00	Udal Irizpid/Crit munic.
Integratuzko jarduera fisikoaren eta Kirolaren sustapena/Promoción de la actividad física de integración y del deporte	Kirol Egokituaren Federazioa/Federación Deporte Adaptado	0220.481.231.01.02	Dirulaguntza: Kirol Egokituaren Federazio/ Subvención: Federación deporte adaptado	9.000,00	Izenduna/Nominativa

3.- Sail kudeatzaileak: Hizkuntza politika, Udal Euskaltegia/ Departamentos gestores: Política lingüística, Euskaltegi municipal

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias	Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo	
Euskararen erabilera sustatzeko ekarpenak/ Aportaciones promoción uso del euskara	Hedabideak				
		0230.471.335.40.01	Goierriko Hitza	27.960,00	Izenduna/Nominativa
		0230.471.335.40.02	Goierri Telebista	27.960,00	Izenduna/Nominativa
		0230.471.335.40.03	Goiberri	13.980,00	Izenduna/Nominativa
		0230.471.335.40.03	Goierri Irratia	13.980,00	Izenduna/Nominativa
Euskararen ikaskuntza eta erabileraren sustapena/Promoc. Aprendizaje y uso del euskara	Familiak / Familias	0230.480.335.30.01	Dirulaguntzak Euskara / Subvenciones: Euskara	8.500,00	Ordenantza/Ordenanza
		0000.480.335.10.02	Euskaltegi: kurtso amaiera bekak / Euskaltegi: becas fin de curso	8.000,00	Ordenantza/Ordenanza
		0000.480.335.10.01	Euskaltegi: langabetuei bekak / Euskaltegi: becas a parados	8.000,00	Ordenantza/Ordenanza

4.- Sail kudeatzaileak: Kultura eta Gaztedia / Departamentos gestores: Cultura y juventud

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias	Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo
Igartza Musika beka / Beca Música Igartza	Familiak / Familias	0240.480.334.10.01	Igartza beka / Beca Igartza	5.000,00 Bases reg./Oinarriak
Herriko elkarteekin lankidetzak kultur jarduerak sustatzeko/Colaborac. Con asoc. municip. para promoción de activ. culturales	Herriko elkarteak / Asociaciones municipales			
		0240.481.330.00.01	Hitzarmenak / Convenios	155.818,95 Deialdia/Convocatoria
		0240.481.338.10.01	Dirulaguntzak: auzoetako jaiak / Subv.: fiestas barrios	12.037,00 Deialdia/Convocatoria
		0260.481.337.20.05	Hitzarmenak Gaztedia / Convenios Juventud	15.500,00 Deialdia/Convocatoria

5.- Sail kudeatzailea: Partaidetza, berdintasuna, migrazioa eta hezkuntza/Departamento gestor: Participación, Igualdad, Migración y Educación.

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias	Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo
Genero berdintasun eta aniztasunaren garapena/Promoción de la igualdad y la diversidad	ASMUBE	0241.481.231.50.01	Hitzarmena: ASMUBE / Convenio: ASMUBE	10.174,50 Izenduna/Nominativa
Kontzertatutako ikastetxeen mantenimentu gastu eta kultur jardueretarako laguntza/Ayudas gastos mantenim. y activ. culturales colegios concertados.	Kontzertatutako ikastetxeak / Colegios concertados			

	0241.481.323.40.01	Dirul: La Salle-San José ikastet.	50.000,00	Izenduna/Nominativa
	0241.481.323.50.03	Dirul.: Andramendi ikastola	22.000,00	Izenduna/Nominativa

6.- Sail kudeatzailea: Merkataritza eta turismoa/Departamento gestor: Comercio y turismo

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias		Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo
Merkatal eta turismo sektoreen lehiakortasuna sustatzea/ Promover la competitividad de los sectores comercial y turístico	BAREAK, Eskualdeko merkataritza bulegoa, Odolki kofradia eta enpresak / BAREAK, oficina comarcal de comercio, Cofradía de la morcilla y empresas				
		0243.481.430.00.01	BAREAK merkatarik Elkartea/ Asociac. comerciantes BAREAK	13.387,50	Izenduna/Nominativa
		0243.481.430.00.02	Eskualdeko merkataritza bulego /Oficina comarcal comercio	6.104,70	Izenduna/Nominativa
		0243.481.432.00.02	Odolki kofradia/Cofradía morcilla	5.000,00	Izenduna/Nominativa
		0243.471.335.30.01	Errotuluak, irudi korporat., web/Rótulos, imagen corp. ,web	800,00	Ordenantza/Ordenanza

7.- Sail kudeatzailea: Zerbitzuak / Departamento gestor: Servicios

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias		Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo
Landa ingurunearen iraupenerako lag. /Ayudas a la conservac. del entorno rural	Familiak/Familias				
		0380.480.414.00.01	Dirulaguntza: Baserritarrak	1.000,00	Udal Irizpid/Crit muni
		0380.481.338.00.01	Landa ingurunekeo festak/Fiestas	22.500,00	Udal Irizpid/Crit muni

			barrios rurales		
Kutsadurak osasunean duen eraginaren azterketa. /Estudio efecto de la contaminación en la salud	BIODONOSTIA Institutua				
		0391.481.172.00.01	Dirulaguntza: INMA Proiektua	3.600,00	Izenduna/Nominativa
Udallerriaren eremuan ingurugiro jarduerak egiteko dirulaguntzak	Elkarteak eta partikularrak	0391.480.172.00.01	Dirulaguntzak: Ingurugiroa	1.000,00	Udal Irizpid/Crit muni
Hiriaren apaintasunaren mantenim. / Mantenimiento del ornato urbano	Familiak / Familias	0390.480.171.00.01	Lorategi partikular manten/ Manten. Jardines particulares	6.500,00	Udal Irizpid/Crit muni

8.- Sail kudeatzailea: Kirolaren Udal Erakundea / Departamento gestor: Fundación municipal de deporte

Helburu estrategikoak / Objetivos estratégicos	Onuradunak / Beneficiarios	Aurrekontu aplikazioak / Aplicaciones presupuestarias	Kopurua / Importe 2017	Mota / Tipo	
Herriko elkarteekin lankidetzak kirol jarduerak garatzeko	Herriko elkarteak / Asociac. municipales				
		0000.481.341.00.01	Lankidetzak hitz./Convenio.: S.D. Beasain	150.000,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.02	Lankidetzak hitz./Convenio: B.K.L.	18.265,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.03	Lankidetzak hitz./Convenio: Trigoi triatloi taldea	8.589,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.04	Lankidetzak hitz./Convenio: Shorinji kempo taldea	3.850,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.05	Lankidetzak hitz./Convenio: Alfil xake elkarte	6.772,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.06	Lankidetzak hitz./Convenio.: Aitz-zorrotz elkarte	2.999,00	Izenduna/Nominativa

		0000.481.341.00.07	Lankidetza hitz./Convenio: Txindoki atletismo	2.250,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.08	Lankidetza hitz./Convenio.: Arrastaka mendi taldea	17.419,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.09	Lankidetza hitz./Convenio.: Murumendi pelota	5.457,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.10	Lankidetza hitz./Convenio.:S.C. Loinaz	21.655,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.11	Lankidetza hitz./Convenio.: Igartza Igeriketa taldea	3.748,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.12	Lankidetza hitz./Convenio: Arrano Beltza	2.990,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.13	Lankidetza hitz./Convenio.: Igartza arku tiroketa	3.386,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.14	Lankidetza hitz./Convenio.: Andramendi ikastola	3.950,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.15	Lankidetza hitz./Convenio: Laguntaldeen futbola	2.480,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.16	Lankidetza hitz./Convenio: Beti Bizi elkarte	9.590,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.17	Lankidetza hitz./Convenio: Batzoki kultur elkarte	1.120,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.18	Lankidetza hitz./Convenio: Lorea Wu-Shu	1.125,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.19	Lankidetza hitz./Convenio: Beasaingo Bare-txikiak	32.634,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.20	Lankidetza hitz./Convenio: Beasain Motor Racing	1.733,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.21	Lankidetza hitz./Convenio: Antzar pelota Lazkao	225,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.22	Lankidetza hitz./Convenio: Azurmendi Herri kirolak	2.822,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.23	Lankidetza hitz./Convenio: Bealak atletismo kluba	9.040,50	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.24	Lankidetza hitz./Convenio: Orekan bizi naiz	3.000,00	Izenduna/Nominativa



		0000.481.341.00.25	Lankidetza hitz. /Convenio: Goierriko boxing kluba	900,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.26	Lankidetza hitz./Convenio: Beasain pádel elkartea	900,00	Izenduna/Nominativa
		0000.481.341.00.27	Lankidetza hitz./Convenio: Goierriko Gurutze Gorria	9.270,00	Izenduna/Nominativa

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**6.- HITZARMEN URBANISTIKOA.** Errekarte I, 32 areako hitzarmenaren hasierako onespena.

Ezagutzera eman da, Lurralde batzordearen hitzarmena, hau da:

*“Gaia: 32 Errekarte I arearen garapen eta exekuziorako hitzarmen urbanistikoa.*

#### AURREKARIAK

*1.- 2017-07-07ko datarekin CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A.k (eremu horretako Kontzertazio Batzordearen egungo jabeetako bat, entitate horretako 8 zenbakia duen 2017-06-22ko aktaren arabera), 32 Errekarte I arearen garapenerako hitzarmen urbanistikoaren zirriborroa aurkeztu zuen.*

*2.- Aurkeztutako testua aztertu ondoren, kontsentsuatu dira egin beharreko aldaketak. Horren ondorioz, 2017-07-14ko datarekin erregistro orokorrean sarrera izan hitzarmenak onartzeko eskatuz.*

#### OINARRI JURIDIKOAK

- *2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Zazpigarren Xedapen Gehigarria: hirigintza hitzarmenak.*
- *Toki araubidearen oinarrien Legea. 22. Artikulua. Plenoaren eskumena onartzeko, hirigintza egikaritzeko hitzarmena izateaz gain, hirigintza antolamenduari buruzko hitzarmena ere delako.*

*Aurrekari nahiz oinarri juridikoak kontuan izanda, lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:*

*Lehenik. Errekarte I, 32 area garatu eta exekutatzeko (R.3 lursaila) hitzarmenaren testuari (proposamen honi atxikitzen zaio) hasierako onespena ematea.*

*Bigarren. 20 laneguneko epean jendaurrean jartzea, testu osoa GAOean eta Udalaren Web orriko ediktu taulan argitaratuz, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu daitezten.*

*Hirugarren. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin betiko onartua geratu dela ulertuko da.”*

#### HITZARMENAREN TESTUA

*“Beasainen, 2017ko irailaren .....(e)(a)n*

## BILDUTA

BATETIK, AITOR ALDASORO ITURBE jauna, adin nagusia, NAN ..... duena, BEASAINGO UDALEKO alkate-lehendakaria, eta ondorio hauetarako helbidea Udaletxean duena.

BESTETIK, ALFREDO POZUETA LÓPEZ DE ZUBIRIA jauna, adin nagusia, NAN ..... duena eta ondorio hauetarako helbide hau duena: Donostia, Easo kalea 31 – 2. C.

## PARTE HARTZEN DUTE

..... jaunak, Beasaingo Udalaren alkate-lehendakari den aldetik, 2017ko .....(e)ko Osoko Bilkuran emandako ahalmenen indarrez.

ALFREDO POZUETA LÓPEZ DE ZUBIRIA jaunak, Beasaingo Arau Subsidiarioetako “ERREKARTE I” eremuko UE.32.1. gauzatze-unitatearen Ituntze Batzordeko presidente den aldetik, 2017ko .....(e)ko Ezohiko Batzar Nagusian emandako ahalmenen indarrez.

Elkarri onartzen diote zuzenbidearen arabera aginduzkoa den guztiaren mende jartzeko ahalmena, eta aurrekari hauek azaltzen dituzte.

## AURREKARIAK

1.- Onartuta dago “ERREKARTE I” 32. eremuaren plangintza xehatua —Hiri Antolamenduko Plan Berezia (2008-11-11 GAO)—, baita Urbanizazio Proiektua —hasierako onarpena eman zitzaion 2010-10-8an, baldintza zehatz batzuekin—.

“ERREKARTE I” eremuko UE.32.1. gauzatze-unitatearen Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartu zuen Udal horrek 2016-7-27an (2016-8-17 GAO). Administrazio-bidean indarrean jarri ondoren, jabetza-erregistroan jaso zen, eta emaitzazko partzelak birpartzelazio-erkidegoari eta Udalari esleitu zitzaizkion.

Indarrean dagoen Plan Bereziaren antolamendua diseinatzean zein hasiera batean onartu den Urbanizazio Proiektuaren antolamendua diseinatzean, aintzat hartu da ERREKARTE I eta ERREKARTE II sektoreak daudela eta bi sektore horiek batera gauzatuko direla—inguruabar hori ez dator bat errealitatearekin—.

2.- Ituntze Batzordeak behin betiko bultzada eman nahi dio UE.32.1 gauzatze-unitatearen garapenari, eta, horretarako, Urbanizazio Proiektua behin betiko onartzea baldintzatzen duten arazoak ebazteari ekin zaio. Zehazki, zubien zabalera eta argia hobetu da —URAREN eskakizuna betez—, hasiera batean onartutako soluzioaz bestelako soluzio batekin; Ur Kontsortzioak hautemandako arazoak ebatzi dira; eta Errekarte baserriaren azterketa arkeologikoa esleitu da —Foru Aldundiak baimendu zuen Kulturako zuzendari nagusiaren 2017-08-02ko ebazpen bidez—.

*Bestalde, ERREKARTE I area ERREKARTE II sektoreaz bereizita garatzea ahalbidetzeko Udalaren borondatea kontuan izanik, beharrezko doikuntzak egin ditu ERREKARTE I arean, zerbitzu eta bide guztiek zuzen funtziona dezaten, ERREKARTE II sektorea gauzatzen ez bada ere.*

*Beharrezkoak diren doikuntza horiek 2. fase batean gauzatu nahi dira, ERREKARTE I area gauzatzeko prozesua eten dadin saihesteko. Hartara, esparru hori gauzatzen has daiteke, beharrezko egokitzapena egiten den bitartean.*

*Dena dela, Urbanizazio Proiektu horren hasierako onarpenetik pasa den denbora kontuan izanik (2010-10-08), berriro emango zaio hasierako onarpena aurreko puntuan aipatzen diren baldintzatzaileak eta aurrekontu eguneratua jasoko dituen dokumentu horri.*

*3.- Une oro bermatuko da San Martin Loinazkoaren Basilikara, Loinazko Ermitara eta Telleri Baserriaren ondoan dagoen etxebizitza bifamiliarerako sarbidea. Gaur egungo Urbanizazio Proiektuan, Errekarte II sektorearen bidez bideratzen da ermitarako sarbidea. Horrenbestez, behin betiko onartu ahal izango da Urbanizazio Proiektua eta osatu ahal izango dira gauzatzeko eta kudeatzeko baldintza guztiak — R.3. partzelari lizentzia emateko moduan—. Urbanizazioa zenbait fasetan gauzatzea planteatu da. Horretarako, Hirigintzako Jarduketa Programa bat formulatu beharko da, urbanizazio-faseen araberrako gauzatze hori zehazki jasoko duena. Orube bakoitzari urbanizazio-paketeak lotuko zaizkio, horietako bakoitzaren urbanizazio-maila egokia bermatzeko.*

*4.- Behin betiko, eta baldintza egokiagoetan, ebatzi nahi da San Martin Loinazkoaren Basilikara, Loinazko Ermitara eta Telleri Baserriaren ondoan dagoen etxebizitza bifamiliarerako sarbidea, ERREKARTE II sektorearen mende egon gabe. Alabaina, horrek Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren eta Urbanizazio Proiektuan doikuntza txikiak egitea eskatzen du, eta, hartara, komenigarriagoztat jo da bigarren fase batean ekitea horri, Urbanizazio Proiektua behin betiko onartu ondoren eta R.3 partzelari lizentzia eman ondoren.*

*San Martin Loinazkoaren Basilikara, Loinazko Ermitara eta Telleri Baserriaren ondoan dagoen etxebizitza bifamiliarerako sarbidearen behin betiko soluzioak, URArekin adostu denak, aurreikusten du bi zubi gauzatzea UE.32.1 unitatearen barruan, eta horrek, esan den bezalaxe, aldaketa txiki bat eskatuko du indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren kalifikazio xehatuan, baita aldaketa txiki bat egitea tramitatzen ari den Urbanizazio Proiektuan eta Birpartzelazio Proiektuan ere.*

*5.- Esku hartzen duten aldeek elkarrekiko konpromisoak jasotzeko akordioa lortu dute, UE.32.1 gauzatze-unitatea gauzatzera eta kudeatzera begira. Hortaz, dokumentu hau sinatzen dutenek, adostasunez, formulatzen dute Gauzatzeko eta Kudeatzeko Hirigintza Hitzarmen hau, honako klausula hauen arabera*

#### **KLAUSULAK**

*LEHENA. UE.32.1 gauzatze-unitateko Ituntze Batzordeak gaur egungo Urbanizazio Proiektua berehala formulatzeko konpromisoa hartu du, barnean hartuta 2010-10-8ko*

*hasierako onarpeneko erabakian jasotako eskakizunak, URari, Ur Kontsortzioari, txosten arkeologikoari eta San Martin Loinazkoaren Basilikara, Loinazko Ermitara eta Telleri Baserriaren ondoan dagoen etxebizitza bifamiliarrerako sarbideari dagokionez. Hartara, berehala eta premiaz onartu ahal izango da behin betiko Urbanizazio Proiektua —Udalak konpromiso hori hartzen du—.*

*BIGARRENA. Urbanizazio Proiektua behin betiko onartu ostean —haren espedientea 2010. urtean hasi zen—, R.3 partzelako jabeek eraikuntza-lizentzia eskatuko dute, betiere finantzaketa bermatuko duten salmenta-atalaseak lortzen direnean. Eraikuntza-obrekin batera, gauzatuko dira R.3 partzelan eraikiko den eraikinari zerbitzu egingo dioten urbanizazio-obra.*

*HIRUGARRENA. Gaur egungo Urbanizazio Proiektua onartu ondoren, Ituntze Batzordeak, R.3 partzela eraikitzeko lizentzia eman eta 6 hilabeteko epean, formulatuko ditu Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa, Urbanizazio Proiektua, Birpartzelazio Proiektua eta Hirigintzako Jarduketa Programa, barnean hartuta San Martin Loinazkoaren ermitarako sarbidearen behin betiko soluzioa —esparruan bertan erreka zeharkatuko duten bi zubi bidez gauzatuko da, hipotekatu gabe ERREKARTE II sektorearen inguruan har daitekeen erabakia, deskalifikatzea izan zein kalifikazioa mantentzea izan—. Ondorio horretarako, lurzorua jabeek aurkeztu dituzte aginduzko abalak.*

*Errekarteko Konpentsazio Batzordeak konpromisoa hartu du sustatzeko dokumentu horiek (Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Aldaketa, Urbanizazio Proiektua, Birpartzelazio Proiektua eta Hirigintzako Jarduketa Programa) onar daitezen R.3 partzelaren lehen erabilerako lizentzia eman aurretik. Hortaz, lehen erabilerako lehen lizentzia hori emateko baldintza partikularrak izango dira: batetik, dokumentu horiek behin betiko onartuta egotea, eta, bestetik, urbanizazio-obra gauzatu egotea —zehazki, Hirigintzako Jarduketa Programa berrian aurreikusten diren urbanizazio-faseen arabera aginduzkoak direnak—. Ildo horretan, bi aldeek, Konpentsazio Batzordeak eta Udalak, dokumentu horien guztien garapenean eta tramitazioan laguntzeko konpromisoa hartu dute, ERREKARTE I area behar bezala finka dadin.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gu aurka azalduko gara. Aurreko legealditik datorren gaia da. Gu udalean sartu ginenean arazo horrekin topatu ginen, hain zuzen ere, gu nahi ez genuen proiektu batekin eta parte-hartze prozesu bat burutu zen. Prozesu horrek ondorio batzuk izan zituen eta ikusi zen bertan parte hartu zuten bizilagunek eremu horretarako beste helburu batzuek zituztela. Guk ere bat egiten dugu han azalduko nahiekin eta horregatik gaur aurka bozkatuko dugu puntu honetan.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)  
Aurkako botoak: 6 (Beasaingo EH BILDU)  
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

**7.- OSAGARRI ESPEZIFIKOA.** Lanpostu batetarako osagarri espezifikoa ezartzea.

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordearen proposamena, hau da:

“GAIA: 9. Zkia duen Agente Lehenari erantsitako eginkizunen balorazioa.

### AURREKARIAK

1. 9. Zkia duen Agente Lehenari erantsitako eginkizunen inguruan; interesatuak erreklamazio bat aurkeztu du 2014ko urriaren 31n, 2009-1-7tik egiten ari den eginkizun desberdinetan oinarritutako ordainsariak baloratzeko eskatuz.

2. Hainbat bileren ondoren, bai interesatuarekin eta bai Enpresa Batzordearekin, erabakitzen da bere balorazioa LKSri agintzea.

3. Balorazio honen emaitzaren txostenak dio, orain arte jasotzen zituen baino 265,50 € gordin urtean gutxiago direla, eta interesatuari behar bezala 2017-06-02an jakinarazten zaio, 15 lanegunetako epea emanez alegazioak aurkezteko.

4. 2017-06-22an interesatuaren alegazio idatziak sarrera du, balorazio txostenaren 3. eta 9. faktoreen inguruan.

Baita ere, alegazioen idatzi honetan, interesatuak aipamena egiten du, Udaltzainburuaren txostena, non Agente Lehena Koordinatzaile izateko proposamena egiten duen.

5. Alegazioak aztertu ondoren, LKSek bigarren balorazio txostena egiten du, akordio proposamen honi erantsita doana, eta emaitza da, orain arte jasotzen zituen kopuruekin alderatuz, urteko 580 € gordinetako igoera bere ordainsarrietan.

Igoera hau ematen da, Agente Lehena postuaren faktore guztiak maila eta puntu berdinetan mantendu direlako, 4. (Erlazioen Ardura) eta 7. (Buruko esfortzua) faktoreak izan ezik, azken bi faktore hauek, maila erdian igotzen dira bakoitza, eta honek Agente Lehen postu arruntarekiko 25 puntuko igoera suposatzen du.

Goian aipatutako aurrekariak ikusi eta gero, Antolakuntza Batzorde honek, arlo honetan eskumena duen organoari eramaten dio ondorengo:

### AKORDIO PROPOSAMENA

Lehena.- 9. Zkia duen Agente Lehena den enplegatuaren balorazioaren emaitza onartzea eta Osagarri Espezifikoa urteko 580 € gordinetan igotzea, ardura eta buruko esfortzu handiagoak ordaintzeko.

Bigarrena.- Aipatutako igoera atzera eragintasunarekin ordaintzea eginkizun hauek burutzen hasi zen datatik, hau da, 2009ko urtarrilaren 7tik, interesatuak

*aurkeztutako erreklamazioaren arabera eta Udaltzaingoko Udaltzain-buruak eginiko txostenean berretsia izan dena.*

*Hirugarrena.- Pertsonal Sailari agintzea, behar diren izapideak egin ditzala, akordio hau gauzatzeko.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**8.- HAURRESKOLA KONTSORTZIORAKO UDAL ORDEZKARIA.**  
Ordez kariaren izendapena

Alkate jaunak proposatu du, Haurreskola Kontsortzioan Beasaingo Udalaren ordezkaria, XABIER MATARRANZ RICO zinegotzi jauna izendatzea.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

HAURRESKOLA KONTSORTZIOAN, ordezkari titularra aldatzea, orain arte izan den, IRMA ARNAIZ GUILLEN andreak, zinegotzi karguari uko egiteagatik eta bere orde z, XABIER MATARRANZ RICO jauna izendatzea.

**9.- MOZIOA.** EAJ-PNV eta EH BILDUREN mozioa, Kataluinako gertaerei buruz.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), mozioaren testua irakurri du:

“Euzko Abertzaleak eta EH Bildu Beasaingo Udaltalde en mozio proposamena:

1.- Beasaingo Udalak kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialagatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxilotetak egin baitiren Generalitateko instalazioetan bere arduradun legitimo ei.

2.- Beasaingo Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarritzko eta funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa.

3.- Beasaingo Udalak berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkertasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa - Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.

4.- Beasaingo Udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek eman dira:

Santi Urdampilleta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jaunak: “Los acontecimientos que se acumulan en los últimos días, y que nadie dice querer y de los que nadie quiere responsabilizarse, nos obligan a una reflexión colectiva a la que los/as socialistas queremos contribuir.

1. La relación entre Cataluña y el resto de España es una cuestión no resuelta desde el año 2010, cuando el Tribunal Constitucional alteró el Estatut votado por los catalanes en 2006. La actitud temeraria del PP contribuyó de forma decisiva a dinamitar un acuerdo razonable.

2. Los gobiernos de Catalunya y España desde entonces han sido incapaces de establecer un diálogo serio para encarrilar esta cuestión.

3. El gobierno catalán y la mayoría independentista que le da apoyo han optado por una vía unilateral e ilegal. Es necesario recordar que aquí se han vulnerado ya, y por este orden, el Reglamento del Parlament, los derechos de la oposición, el Estatut de Catalunya y la Constitución española.

4. Esta vía unilateral e ilegal está condenada al fracaso y comporta la actuación de los poderes del Estado, para evitar la celebración de un referéndum que está considerado ilegal por los letrados del Parlament de Catalunya, el Consell de Garanties Estatutàries de Catalunya, el Tribunal Constitucional y la Comisión de Venecia del Consejo de Europa.

5. Los socialistas siempre hemos alertado contra el choque de trenes que otros minimizaban, y hemos defendido siempre otro camino: el camino del diálogo, la negociación y el pacto. Desgraciadamente nuestro planteamiento no ha sido atendido y el choque de trenes del que advertíamos ha llegado.

6. El diálogo político es la única vía que puede permitir salir de este callejón sin salida para que Catalunya gane en autogobierno y financiación, y para que España se transforme en un Estado federal. El pacto que proponemos debería culminar en una reforma constitucional federal que fuera sometida al voto de la ciudadanía. Los socialistas hemos recogido en la Declaración de Barcelona los elementos esenciales de nuestra propuesta y hemos impulsado en el Congreso de los Diputados la creación de una Comisión parlamentaria para abordar estas cuestiones.

7. En estos momentos llamamos a los gobiernos de Catalunya y España a detener una escalada que nos lleva a todos al desastre. La solución al problema de la relación entre Catalunya y el resto de España no vendrá de la mano los tribunales, pero el respeto a la legalidad nos obliga a todos. La determinación del Estado de impedir la celebración de un referéndum ilegal no puede implicar en ningún caso limitar el debate político y los derechos consagrados en la Constitución.

8. Es por todo ello que pedimos al gobierno de Cataluña que renuncie a la organización de un referéndum ilegal y que esta renuncia haga posible la apertura inmediata de un proceso de diálogo y negociación al que estén convocadas todas las fuerzas políticas catalanas y españolas. Pedimos al gobierno de España que dé una respuesta política a un problema político y que no pretenda que la única respuesta del



Estado a este problema político la dé el poder judicial. Los presidentes Puigdemont y Rajoy deben hacer hoy lo que hace meses deberían haber hecho, hablar.

9. Los/as socialistas estamos comprometidos a contribuir a encontrar una solución democrática y acordada a los problemas planteados y queremos emplazar todas las instituciones y partidos a hacer contribuciones positivas en esta dirección.

10. Llamamos a la serenidad y la calma. Las instituciones democráticas tienen la obligación de encontrar una salida al conflicto abierto que vivimos y no deben trasladar a la ciudadanía la solución del problema. Los catalanes y las catalanas tienen garantizados sus derechos y Cataluña como país su autonomía. Sólo el empecinamiento en una vía unilateral e ilegal puede ponerlos en peligro. Llamamos a la responsabilidad de los gobiernos de Cataluña y España para iniciar de forma inmediata el diálogo, la única vía, reiteramos, de solución.

11. Por último, mostramos nuestra solidaridad con todos los cargos públicos que, como más de 120 alcaldes/as del PSC (Partido Socialista de Cataluña), están defendiendo la legalidad en Cataluña y se niegan a ceder ante coacciones e insultos.

Por todo esto, votaremos en contra.”

Koldo Agirre (Beasaingo EH BILDU) jaunak: “Guk bat egiten dugu, “gure esku dago”k bultzatzen dituen ekintza ezberdinetan, besteak beste, igandeko manifestazioarekin. Bestalde esan, kataluniarrak egiten ari diren bidea ereduigarri dugula eta beraien egiteko modua ere exenplarra dela, modu baketsu eta eraginkorreak doalako.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “No voy a entrar en debate pero si decir que estando de acuerdo con lo que dices, Santi, yo creo que la negociación continua no de este gobierno, sino la negociación continua durante años de las distintas nacionalidades que existen en el estado español, de cepillarse continuamente las querencias de esas nacionalidades, es la causa de lo que ahora acaece.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Koldo, sólo un matiz. Decías que las cosas en Cataluña se están haciendo bien y que tenemos que tomar buen ejemplo de ello, yo creo que estás totalmente equivocado. Nosotros los socialistas reconocemos la plurinacionalidad de España y estamos totalmente de acuerdo en que Euskadi, en este caso, sea reconocida como nación, pero no vemos otro modo de solucionar este problema tanto en Euskadi como en Cataluña, más que la vía de un estado federal con soberanía única.”

Koldo Agirre (Beasaingo EH BILDU) jaunak: “¡Esa es la vía de la democracia!.

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Si a ti te parece que las imágenes que hemos visto el otr día, miles de energúmenos encima de los coches..., las coacciones, los insultos y del acoso que ha sufrido una delegación de la policía judicial en Cataluña...Yo, sinceramente eso no quiero para nosotros, que también vivimos aquí y somos parte de esta sociedad. No queremos esas vías. Ya digo, creo que vas por la vía equivocada.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH BILDU)  
Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)  
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da mozioa.

**10.- ALKATEAREN EBAZPENAK**. 2017ko ekainaren 26tik irailaren 23arte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2017ko ekainaren 26tik irailaren 23arte emandako Ebazpenak.

### **11.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderetan ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.